

Berriak

ETXEBERRIA PABON, LUIS
Ctro. penitenciario San Sebastian
Martutene ,55 DONOSTIA
k.f. 37/90

Levante
No coste

PAZKOAK 2001



Deportibo baten **2** eserleku dituzu.

Auto baten **5** eserleku dituzu.

Opel **Zafira** da bere mailan
7 eserleku dituen bakarra.



Opel Zafirak automobilaren kontzeptua bere osotasunean aldatu du. Kanpoaldetik, auto familiar baten tamaina berbera dauka. Barrualdean bizitasunez beteta dago, **7 eserleku** dauzka eta eserlekuok itxuraldatzeko aukera ugari ditu, zure familia eta lagunen beharretara egokitzeko. Opel Zafira, zure planak bezain malgua.



Opel **Zafira**. 7 aldiz malguagoa.

www.opel.es

OPEL CREDIT



1, 2, 3, aukerak: *Beti auto berria edukitzeko modurik errazena.*

OPEL

TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g. Telefonoak: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN:

TAKOLO AUTOAK, S.L.

HELBIDE BERRIA: San Andres auzoa 10-D. Telefonoa: 943 79 05 86.



Aurkibidea

PAZKOAK 2001

- Alkatearen agurra **4.**
- Agenda eta zerbitzuak **5.**
- Jaietako egitaraua **6.**
- 'Baserría' zarzuela **11.**
- Errekortadoreak **15.**
- Zezen festa **16.**
- Dantza suelto txapelketa **19.**
- Aurten erraldoi berriak **20.**
- 'El flechazo', 50 urte dianan **22.**
- Pazkoetako kartel iragarleak **25.**
- Rock kontzertuak **27.**
- Camp dantzaldiak **30.**
- Antzerkia kalean **33.**
- Bakailau lehiaketa **34.**
- Pazkoetako pegatina **37.**
- San Esteban Elkoartiko jaiak **38.**
- GOITB Pazkoetan **41.**
- Txosnak **42.**
- Atrebentzia espada **45.**
- Erretratu zaharra **46.**

Alkatearen agurra



Berrigara

454 zenbakia. Ale berezia
2001eko ekainaren 1a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97.
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa: berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkartea
Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi,
Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Mireia Larrañaga.
Harpidetzatzailea: Nerea Lazpiur.
Testuen zuzenketak: Sergio Azkarate,
Gari Bragado.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate,
M. Angel Elkorobereizbar, Alex Labaien,
Estepan Plazaola.
Irudigilea: Gorka Ortega.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Oñati).

Azaleko irudia: Berrigara.

Tirada: 5.500 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntzaz:



Bergarako
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurlaritzako
Kultura Saila



2001eko Pentekoste jai hauetan -mende berriko lehenengoak izanik- agur berezi bat bergarar guztientzat. Itxaropenezko mezua bidali nahi nizueke, koloreari eta ideiei begiratu barik, elkar errespetatzen jakin dezagun, eta herriko jai nagusiak elkarrekin ospa ditzagun. Ea batasun horri etorkizunean ere eusten diogun, gogoan hartuta denon artean sortu behar dugula bakean biziko den gizartea, justizia eta elkartasuna nagusi izango den gizartea. Une honetaz baliatuta, hainbat arrazoiengatik gure artean egon ezin diren bergararrak ere gogoratu nahi nituzke, eta horiei nire elkartasuna eta besarkada bero bat. Laster arte.

Victoriano Gallastegi, alkatea

ELKAR fotokopiak

Arruriaga 1, behea. Tf. eta faxa 943 76 58 16.

Fotokopiak
Plastifikazioak DIN A4 eta DIN A3
Fax zerbitzua
Enkuadernazioak
Eskolarako materiala

Planoen kopiak
Kautxozko zigiluak
Fotokopia digitalak zuri-beltzean CDarekin
KOLORETAKO FOTOKOPIAK LASERREAN !
PLANOEN KOPIAK, ESKANEATZEA ETA PLOTEATZEA



Iturkintza • Berogintza • Bainuak

Laskurain

Barrenkalea 35

ONDO PASAU JAIXAK!!

☎ 943 76 24 89

hi, gazte!



BEKAK

Leonardo Da Vinci dirulaguntzak. Confebask. 35 urte baino gutxiagoko lizentziadunak edo azken mailan diharduten ikasleak. Atzerriko enpresatan praktikak egiteko bekak. Epea: ekainak 15.

JARDUERAK

Donostia. Gizaide. 18 urtetik gorakoendako. 2001eko auzolandegiak Gizaide Fundazioan. Caritas elkartearen Donostiako Buruko Gaixotasunen Eguneko Zentroa. Epea: ekainak 15.

Martutene. Caritas. 21 urtetik gorakoendako. Martuteneko presoekin lan egiteko auzolandegia. Epea: ekainak 29.

Hirugarren Mundua. Elizbarrutiko Elkartasun Plataforma. 17tik 20 urtera bitartekoendako. Altzon egingo den auzolandegia. Hirugarren Munduaren gaia lantzeko. Epea: ekainak 30

IKASTAROKAK

Telebista. Sarobe. Telebistako eta antzerkiko interpretazioen arteko oinarriko desberdintasunak. Epea: ekainak 24.

SARIKAK

Literatura. Kutxa Fundazioa eta Donostiako Udala. Ipuingintza eta antzerki sariak euskaraz / gaztelaniaz. Epea: urriak 5

Multimedia. SGAE. Web orrialde eta multimedia CD-ROM hoberekin. Epea: irailak 20.

INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak. Telefonoa: 943 77 91 57. E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00. Larunbata: 09:30-13:30.

oharrak

■ **1958an jaiotako enafaria** ekainaren 16an Txurigo jatetxean. Izena ematea (2.000 pezetako depositoa) Irrintzi edo Usoa tabernetan.

■ **1960an jaiotako enafaria** ekainaren 23an Osintxuko Txurigo jatetxean, 21:30ean.

Aurretik taldeko argazkia aterako da Osintxuko frontoian, 21:00etan. Izena ematea (2.000 pezetako depositoa) BBVA banketxean irekitako kontu korrontean ekainaren 15era arte egin daiteke.

■ **Herri bazkaria** martitzenean, ekainak 5, San Martin plazan, 14:30ean. Aurretik, 13:00etan, poteoa egiteko elkartuko dira.

Bazkalostean kalejira egingo da, 18:00etatik aurrera. Herriko koadrilek, Xamatz dantza taldeak, Amnistiaren aldeko batzordeak eta Jardun elkarteak antolatuta. Txartelak (1.700 pezeta) Pol-Polen, Ariznoan eta Arrano tabernetan.

■ **Eskubaloia.** Elgoibar, Hondarribia eta Bergarako kadete mailako eskubaloitaldean artean erabakiko da Gipuzkoako kopako txapelduna. Zapatuan, ekainak 2, Labegarrietako Kiroldegian, 17:00etatik aurrera.

zorionak!



Ane Zangitu
1ean 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Irati Lazpiur
2an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta, batez ere, anaia Asier.



Iker Ruiz de Larramendi
6an 5 urte. Urte askotarako! Familiakoak; batez ere, Olatz.



Oier Aperribai
3an 10 urte.
Urte askotarako eta muxu handi bat! Familiakoak.



Lorea Franco
7an 7 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Asier anaia.



Yaiza Plazas
5ean 9 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Saray.



Alazne Soto
4an urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.

Hurrengo alean, ekainaren 8tik 14ra bitarteko enafari zorion agurrak argitaratuko ditugu.

kontuan hartu...

FARMAZIAK

EGUAKITZA 1:
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15

ZAPATUA 2:
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74

DOMEKA 3:
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87

ASTELEHENA 4:
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87

MARTITZENA 5:
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05

EGUAZTENA 6:
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63

EGUENA 7:
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15

OGIA

DOMEKA 3. Mizpildi

MARTITZENA 5. Ogizun

TELEFONOAK

OSASUNA / LARRIALDIKAK

Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40

Bergarako udaltzaingoa. 943 77 91 06

Antzuolako udaltzaingoa. 943 76 62 46

Ertzaintza. 943 76 53 40

Osasun Etxea. 943 76 24 40

Angiozarko medikua. 943 78 90 27

Antzuolako medikua. 943 76 62 23

GARRAIOAK

Taxiak. 943 76 19 50

UDALA

Bergarako udaletxea. 943 77 91 00

Antzuolako udaletxea. 943 76 62 46

Kultur Etxea. 943 77 91 58

Liburutegia. 943 77 91 62

Kiroldegia. 943 76 56 41

Mizpirualde Egoitza. 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia. 943 76 14 92

Erregistroa. 943 76 13 15

Jardun. 943 76 36 61

Idolaz. 943 76 65 08

Jubilatuaren Etxea. Bergara. 943 76 21 40

Antzuolako jubilatuaren elk. 943 76 62 71



"la Caixa"

Fraiskozuri plaza 7. Telefonoa: 943 76 41 16

- 📖 Ikastaro teoriko trinkoak **euskaraz eta gaztelaniaz**
- 📖 Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
- 📖 Izena ematean, **%10eko deskontua** Gazte Txartelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!

Telefonoa: 943 76 16 63



jaietako egitaraua



Bitorianatxo, eguakitzean, 20:00etan.

EGUAKITZA 1

- **20:00** Jaiak hasiko dira etxafuego jaurtiketarekin eta BITORIANATXOren JAITSIERAekin.
 - **20:00** Udal Musika Bandaren KALEJIRA, hiriguneko kaleak alaituz.
 - **20:00** Matxiategin, BARRAKAK irekitzea.
 - **20:00** Bideberriko TXOSNAK irekiko dituzte.
 - **20:30-21:30** DANTZALDIA Joselu Anaiak taldearekin, San Martin plazan.
 - **22:30** Jesus Guridiren *Baserría* ZARZUELAren antzezpena, Jose Luis Frantzesenak moldatua eta zuzendua, Udal Pilotalekuan.
- Parte hartzaileak:*
Azpeitiko Julian Barrenetxea abesbatza
Aretxabaletako Aretxabaleta abesbatza
Azpeitiko Itsasi dantzari taldea
Azpeitiko Musika Bandako kide batzuk
- **23:00** DANTZALDIAren jarraipena. Joselu Anaiak taldea, San Martin plazan.
 - **24:00** ROCK KONTZERTUA Bideberriin: U.K. Subs, Sin City Six, La broma de Satan eta Fly Shit taldeak.

ZAPATUA 2

- **09:00** XXI. Haur eta Gazteen PLASTIKA SARIKETA. Beart taldeak antolatuta. Bearten egoitzan (Bolu kalea, 49).
 - **10:00** DIANA, auzoak esnatu ondoren, San Martin plazan elkartuko dira. Oxirondotik, Kobok dultzaineroak. Labegaraietatik, Josu eta Jokin soinu-joleak. Bolutik; Udal Txistulari Banda.
- Gero**
 MIZPIRUALDERA BISITA egingo dute dultzainero eta txistulariek.
- **11:30** Elkarteen arteko SUKALDARITZA LEHIAKETA. Bakailaoa pil-pilean prestatuko dute elkarreek San Martin plazan, trikitilariak alaituta.
 - **11:30** XXI. Haur eta Gazteen PLASTIKA SARIKETAko sari banaketa. Beart artisten elkarrearen egoitzan (Bolu kalea, 49).
 - **16:30** PILOTA PARTIDUAK Udal Pilotalekuan.
 - Urionaguena-Balerdi/ Beloki II.a-Nalda III.a
 - Unanue-Armendariz/Olaizola I.a-Errasti
 - Salaberria-Galartza IV.a/ Ariznabarreta-Albizuri
 - **17:00** ZIRKOA: *Munduko malabaristenak* emanaldia Zirko Ttipiaren eskutik, Xabier Munibe plazan.
 - **18:00** ERREKORTADOREEN Euskadiko II. TXAPELKETA. Txapelketa horretan Nafarroako, Tolosako, Donostiako eta Bergarako bikoteek parte hartuko dute.
 - **18:30** ERRALDOIEN ALARDEA, Urretxuko eta Arrasateko erraldoien konpartsek eta Bergarako erraldoiek, Udal Txistulari Bandak eta Kobok, Bergarako dultzainero taldeak, parte hartuko dute. Ibilbidea: kultura etxea, Barrenkalea,

- Gaspar jatetxea, Irizar pasealekua, Fraisko-zuri plaza, Irala kalea, Barrenkalea, San Martin plaza, Barrenkalea eta kultura etxea.
- **23:00** KONTZERTUA San Martin plazan, Sen, Eraso eta Lau Behi taldeekin.
 - **23:00** ROCK KONTZERTUA, Bideberriin, Black Halos, Sex Museum, Cannonballs eta Cool Panic taldeekin.
 - **23:00** DANTZALDIA Espoioian, Tarantella orkestrarekin.

DOMEKA 3

- **08:15** Udal Txistulari Bandarekin ALBORADA.
- **08:30** Mutrikuko Udal Musika Bandaren KALEJIRA, San Martin plazatik.
- **09:00** Lehen ENTZIERROA. Ibilbidea: Gaspar jatetxeko garajea, Barrenkalea, Bidekurutzeta, San Martin plaza, Ramon M. Lili eta zezen-plaza. Segidan, ENBOLATUAK.



Bideberriin hainbat rock kontzertu izango dira.



ARATZ

Zurradero 6, behea
 Telefona: 943 76 70 67 Mobila: 607 48 71 19

ALBAITARI KLINIKA

*Jai zoriontsuak opa dizkiegu
 gure bezero guztiei!*



Jose Cascon eta Curro Reyes nobilleroak izango dira aurtengo zezen festako protagonistak.

■ **09:00** TXIRRINDULARI LASTERKETA: 23 urtez azpikoentzat LXVI. Pentekoste Saria.

■ **11:00** MEZA NAGUSIA San Pedro elizan, Udal korporazioa partaide dela, eta Udal Musika Bandak eta Udal Txistulari Bandak lagunduta.

■ **11:30** Hamabost urtez azpiko bikote gazteendako XXIV. EUSKADIKO DANTZA TXAPELKETAren kanporaketak, San Martin plazan. Lehenengo 15 bikoteak sailkatuko dira arratsalderako.

■ **12:30** Udal Musika Bandaren KONTZERTUA, Espoioan.

Egitaraua

Cantame un pasodoble. Pasodoblea

C. Cano

Fantasy Tales.

P. Swerts

Ballet Parisien. Suitea, Obertura, Valse,

Galop, Finale

J. Offenbach

Las golondrinas. Pantomima

J.M. Usandizaga

Glenn Miller Medley. Big band

G. Miller

Zuzendaria: Alfredo Gz. Chirlaque.

■ **17:30** San Martin plazatik zezen-plazaraino KALEJIRA Mutrikuko Musika

Banda eta Elgoibarko dultzaineroek lagunduta. Parte hartzaileak: mandakoak, agoa-ziltxoak, agintariak eta herriko zaleen koa-drilak.

Geldialdia egingo dute Alzelai-enean.

■ **17:30** Hamabost urtez azpiko bikoteendako XXIV. EUSKADIKO DANTZA TXAPELKETA San Martin plazan, Udal Txistulari Bandak lagunduta.



Barrakak, egunero zirrara sortzen. Astelehena Umeen Eguna izango da.

■ **18:00** ZEZEN FESTA. Salamancako Espioja ganadutegia. Zezen Zaleak taldearen laguntzaz. Nobilleroak: Jose Cascon eta Curro Reyes. Ordezkoa: Ivan Fandiño 'El niño de la Antigua'.

Gero

Elgoibarko dultzaineroek herriko kaleak alaituko dituzte.

■ **19:30** ANTZERKIA: Dar-Dar produkzioak antzetzutako *Alizia bitxikerien lurraldean*, Xabier Munibe plazan.

■ **23:00** Paco Formoso eta Passarella orkestrarekin, CAMP DANTZALDIA, San Martin plazan.

ASTELEHENA 4

■ **08:30** KALEJIRA, Los Incansables txarangak alaituta, entzierroaren ibilbidetik zezen-plazaraino.

■ **09:00** Bigarren ENTZIERROA. Ibilbidea: Gaspar jatetxeko garajea, Barrenkalea, San Martin plaza, Bidekurutzeta, Ramon M. Lili eta zezen-plaza.

Segidan, ENBOLATUAK, Los Incansables txarangak alaituta.

■ **10:30** Ollagorra elkarteak antolatutako PLATER TIROKETA, Gorlako Hirubide zelaian.



COMERCIAL BRUNET

YAMAHA • HONDA • KAWASAKI • SUZUKI

Ozaeta 11-13, behea. BERGARA (Gipuzkoa)

Tf: 943 76 31 52.



JAIETAKO EGITARAUUA

■ **11:30 - 14:00** Ipintza Ilko patioan haurrentzako JOLAS PARKEA: kart-ak, gaztelu puzgarriak eta abar. Barraketan haurrentzat prezio bereziak izango dira.

■ **11:30** Udal Musika Bandaren KALEJIRA.

■ **12:30** Udal Musika Bandaren KONTZERTUA, Espoioian.

Egitaraua

Aizepe. Martxa

A. Gz. Chirlaque

Victory.

J. de Hann

La Gran Via. Zarzuelatik hautatua

Chueca-Valverde

The last of the mohicans. Soinu banda

Jones-Edelman

Soul Bossanova

Q. Jones

Bergarako ereserkia

A. Gz. Chirlaque

Zuzendaria: Alfredo Gz. Chirlaque

■ **16:30** PILOTA PARTIDUAK

Udal Pilotalekuan.

• Retegi IV.a-Nalda III.a/

Saralegi-Albizuri

• Tirapu-Patxi Ruiz/

Berasaluze VIII.a-Armendariz

• Arretxe-Otxandorena/Agirre-Pascual

■ **17:00 - 20:00** JOLAS PARKEAren

jarraipena, haurrentzat. Ipintza II institutuko patioan.

■ **18:00** JOLASAK GAZTEENTZAT, Gorritiren ganaduekin, Los Incansables TXARANGAK animatuta, zezen plazan.

Gero


Los Incansables txarangaren KALEJIRA.

■ **20:00** BONBA JAPONIARRAK haurrentzat, San Martin plazan, eta ondoren, buruhandi eta erraldioen kalejira.

■ **23:00** DANTZALDIA, Alaitz eta Maider taldearekin, San Martin plazan.

■ **23:00** ROCK KONTZERTUA, Bideberrin, Ñaco Goñi, Audience, Requiem eta X-at taldeekin.

■ **23:00** Nueva Alaska orkestrarekin DANTZALDIA, Espoioian.



Jolas parkea Ipintzako patioan, astelehenean.

MARTITZENA 5

■ **08:30** KALEJIRA, Los Incansables txarangak alaituta, entzierroaren ibilbidetik zezen plazaraino.

■ **09:00** Hirugarren ENTZIERROA. Ibilbidea: Gaspar jatetxeko garajea, Barrenkalea, San Martin plaza, Bidekurutzeta, Ramon Maria Lili eta zezen plaza. Segidan, ENBOLATUAK, Los Incansables txarangak alaituta.

■ **11:00 - 20:00** Pentekoste jaietako kartel lehiaketara aurkeztu diren KARTELEN ERAKUSKETA, udaletxeko arkupeetan.

■ **11:30** Egunean zehar, Xafre eta Zaharra, Josu eta Jokin TRIKITILARlek eta Los Incansables TXARANGAk herriko kaleak alaituko dituzte.

■ **11:30-14:00** HERRI TRENAren ibilaldia,

Fraiskozuri plazatik irtenda.

■ **12:30** IPARRALDEKO HERRI KIROLEN IKUSKIZUNA, San Martin plazan.

■ **13:00** Kalez kale trikitilariekin ibili ondoren, HERRI BAZKARIA

San Martin plazan, herriko koadrilek, Xamatz dantza taldeak, Amnistiaren Aldeko Batzordeak eta Jardun elkarteak antolatuta.

■ **16:30-19:30** Bazkalondoan JOKOAK eta Iraunkorra TXARANGAren emanaldia.

■ **16:30** PILOTA PARTIDUAK

Udal Pilotalekuan.

• Alustiza-Zearra/Etxaniz-Zezeaga

• Unanue-Errasti/Goñi II.a-Goñi III.a

• Minguez-Pinedo/

Muruamendiarras-Arroyo II.a

■ **17:00-21:00** HERRI TRENAren bira,

Fraiskozuri plazatik irtenda.

■ **18:00** ENBOLATUAK, herriko koadrilentzat zezen plazan, Los Incansables txarangak alaituta.

Gero

Los Incansables txarangarekin KALEJIRA.

Egun osoan zehar kaleak alaitzen:

Xafre eta Zaharra eta Josu eta Jokin

TRIKITILARI bikoteak.

Los Incansables TXARANGA.

■ **20:00-21:00 eta 22:30etik aurrera** DANTZALDIA Egan taldearekin, San Martin plazan.

■ **24:00** San Martin plazan elkartzea, eta BITORIANATXOren igoera.



Herri bazkaria, martitzenean, 13:00etan. Gero, jokoak eta Iraunkorra txaranga.

ederTU

Aprobetxa itzazu
Masterrekako eskaintzak!

Ondo pasau Bergarako jaixak!

VENTANAS SAN MIGUEL

Ibargarai 4 Tf. 943 76 12 21 Bergara
Iturrioz 24 Tf. 943 79 78 10 Arrasate
Toribio Etxeberria 22 Tf. 943 12 08 12 Eibar
Errioxa 17 Tf. 945 25 88 92 Gasteiz

*Zure ongizatea
babesteko gande*



943 76 12 21



**VENTANAS
SAN MIGUEL**

SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).

NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTIETAKOAK.

AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMISORIK GABEKO AURREKONTUA.

30 URTEKO ESPERIENZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK.

TELAETXE S.A.

Oihalen neurketatik etxean
ipintzera arte dena gure esku

**Fabrikako
preziotan**

Elgeta bidea,
gasolindegitik
300 metrora
• BERGARA •

Tel.: 943 76 39 40 / 41
Astelehenetik larunbatara
10:00etatik 13:00etara
eta 16:00etatik 20:00etara
zabalik

- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen neguko
kolekzio berria
ikusgai
eta orain
ALFONBRAK

Estella ortopedia

Javier Estella, ortopedia teknikari tituluduna
OSAKIDETZAREKIN ETA LAGUN AROREKIN HITZARTUA

Matxiategi 5, Telefonoa: 943 76 19 63



▲
**Etixerako
laguntza
teknikoa**

**Ondo pasa
dezazuela
denok!**

**Kirol
Ortopedia** ▼



Mastektomiak

**Neurrira eginiko
plantillak.
Oinetakoak** ▶



RPS 421/97

BERGARA Kafea-Pentsioa

EGUNERO

goizeko 7etatik zabalik.
**Gosariak, pintxoak,
bokatak eta meriendak.
Logelak.**



Logelak



Kafetegia

Ondo pasau jaixetan!

Bidekurutzeta 34. Tf. 943 76 47 23

Guztira 90 lagun inguruk esku hartuko dute Guridiren 'Baserria' zarzuela ezaguna euskaratuta



Udal
Pilotalekuan
Egubakoitzean
22:30ean

Azpeitiko Julian Barrenetxea abesbatzak, Itsasi dantza taldeak, Azpeitiko musika bandako 13 musikarik osatutako orkestrak eta Aretxabaleta abesbatzak Jesus Guridi konpositore arabarraren *Baserria* zarzuela eskainiko dute gaur, egubakoitza, udal pilotalekuan. Aurten ere jaiek hasiera musikala izango dute.

Musika ikuskizun-
nek berebiziko
garrantzia izan
dute azken urte-
otan Pazkoetako egita-
rauan. Aurten, Azpeitiko Ju-
lian Barrenetxea abesbatza,
Azpeitiko Itsasi dantza tal-
dea, Aretxabaleta abesbatza
eta Azpeitiko musika ban-
dako hainbat kideren esku-
tik Jesus Guridiren *Baserria*
zarzuela ikusteko aukera
izango da. Talde horiek
1998ko otsailean estreinatu
zuten Guridiren zarzuela
Aretxabaletan, eta ordutik
hona Arrasaten eta Azpei-
tian ere jardun dute. Guztira
90 lagun inguruk esku har-
tzen dute ikuskizunean.



Argazkian, kantariak, musikariak eta Itsasi dantza taldeko kideak *Baserria* zarzuelako une batean.

Esan bezala, Jesus Guri-
di (1886-1961) musikari ara-
barrak sortutako zarzuela
edo opereta da *Baserria*.
1926an estreinatu zen Ma-
drilen eta orain euskarazko
bertsioa datorkigu. Jose Luis
Frantzesena Azpeitiko ban-
dako zuzendariak egin du
orkestra moldaketa eta, era
berean, euskarara itzuli du
Guridiren lana. Bere hitzet-
an, «zarzuelako elkarrizke-

BILTOKI
ASPIZA S.L.

Elektrikako tresnak	Barrenkalea, 6	Tel.: 943 76 25 96
Opariak	Barrenkalea, 12	Tel.: 943 76 04 72
Dekorazioa	San Martin plaza	Tel.: 943 76 43 51
Sukaldeak eta bainuak	San Pedro plaza	Tel.: 943 76 34 00


Herritar eta bezero guztioi jai zoriontsuak opa dizkizuegu.

tak ezabatu ditugu, alderdi musikalari garrantzi handia- goa eman nahi izan diogu- lako. Zarzuela baino, opera dela esango nuke eta izan garen herrietan oso harrera ona jaso dugu ikusleen partetik. Guridiren musika oso ezaguna da eta horrek ere lagundu izan du ikusleengana hurbiltzeko orduan». Musika zuzendaria Frantzesena bera da eta eszena zuzendaria, berriz, Angel Barandiaran. Aurretik, Azpeitiko eta Aretxabaletako taldeek Pablo Sorozabalen *Katiuska* zarzuela ere moldatu zuten, arrakasta handiz, gainera. Frantzesenak azaldu digunez, «Aretxabaletako abesbatzarekin harreman handia daukagu aspalditik eta orain dela bost urte *Katiuska* zarzuela taularatu genuen elkarrekin. Orduan izandako esperientzia hark Guridiren zarzuela bat moldatzera animatu gintuen: zarzuela kostunbrista da, XX. mende hasierako ohiturak jasotzen baitira. Halaber, melodia guztiak euskaldunak direla azpimarratuko nuke».

Esan bezala, amodiozko istorioa tartean dela, nagusiki euskal ohituren gaineko lana da *Baserria*. *Sasibil* izeneko baserriaren inguruan biltzen dira protagonistak. *Ana Mari* eta *Joxe Migel* lehengusuak umezurtzak dira eta baserrian bizi dira osaba *Santirekin*. *Santi* ezkongabea da, herriko alkatea, eta haren ametsa da, ondoren gorik ez duenez, *Ana Mari*



Jose Luis Frantzesenak egin du orkestra moldaketa.



Angel Barandiaran da zarzuelako eszena zuzendaria.

eta *Jose Migel* ezkontzea eta biek *Sasibil* baserria oinordetzan hartzea. Bestalde, *Txomin* eta *Inosensia* baserrian lanean ari dira; *Txomini Ana Mari* gustatzen zaion arren, *Inosensiak*, amaren gomendioak jarraituta, ahalegina egingo du *Txomin* berarengana erakartzeko.

Bakarlariak honako hauek dira: Mariatxen Urkia

soprano atxabaltarra (*Ana Mari*), Juan Jose Etxeberria baxu donostiarra (*Santi*), Entzi Zubiri tenore gasteiztarra (*Joxe Migel*), Mari Karmen Etxeandia mezzo atxabaltarra (*Inosensia*) eta Jose Antonio Esnaola tenore azpeitiarra (*Txomin*). Lehen hirurak kantari profesionalak ditugu.

Zarzuelak ordubete eta hiru ordu laurden irauten

du eta, arinagoa egiteko, ez da dekoratu aldaketarik egingo. Giroz aldatzeko argiztapenarekin jokatu da.

ERRONKA BERRI BAT


Aretxabaletako eta Azpeitiko abesbatzekin batera, Itsasi dantza taldekoek ere esku hartuko dute ikuskizunean. Era berean, Azpeitiko bandako 13 musikaririk osatutako orkestra ere izango da, tartean klarineteak, saxoa, tronpetak, tuba edo pianoa.

Jose Luis Frantzesenaren arabera, «badakigu Bergaran musika tradizio handia dagoela eta lehen ere ikuskizun handiak egin izan direla. Guretako erronka da Bergaran *Baserria* eskaintzea».

Amodiozko istorioa tartean dela, batez ere, euskal ohituren gaineko lana da *Baserria*

Guztira 90 lagun inguruk esku hartzen du 1998an Aretxabaletan estreinatu zen ikuskizunean

Argitapen honen edizioko laguntzaile:

 **kutxa**

gizarte-ekintza
obra social

Urrun heldu al daitezke enpresak garraio zerbitzu aurreratu bat gabe?



EZ

Begiratu Europa berriari eta merkatu bakarra ikusi. Herrialde bakar bat balitz bezala erantzuteko ahalmena duen garraio sare batekin.


Begiratu etorkizunean pentsatzen duten enpresei. Ikusi jada eskatzen ari direla lojistika eta garraiorako aukera berriak. Eta erantzun egokiena eman.

Begiratu ekonomia berriari. Eta ikusi garraioa eta distribuzioa ezinbestekoak izango direla. Nola hitzegin genezake Internet-en bidezko salerosketetaz, primerako garraio zerbitzu bat gabe?

Hauek dira, **Guipuzcoana, Deutsche Post Euro Express** taldean sartzeraz bultzatu duten arrazoiak, Europako garraio eta distribuzio sare aurreratu baten partaide izateko: **Euro Express**.

Emaitzak bidean daude.





UGARTE

A R O Z T E G I A



- Apainketa
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak
- Horma armairuak



Ondo
pasatu
jaiak!

San Juan, 1 • (Gasolindegiaaren parean) • BERGARA • Tel./ Faxe: 943 76 54 91



Saunier Duval



DICOMAN S.L.

San Lorentzo, 21
20.570 Bergara
Laguntza teknikorako zerbitzu
ofizial baimendua
Tf. 943 76 06 61

BEROGAILUAK, KLIMATIZAZIOA ETA UR BEROA

Errekortadoreen Euskadiko txapelketa

Herriko bost lagun arituko dira zezenen aurrean zapatuan



Zezen
plazan
Zapatuan
18:00etan

Bigarren aldiz jarraian, Euskadiko errekortadoreen txapelketa jokatuko da Bergaran Pazkoetan. Nafarroatik, Tolosatik eta Donostiatik etorritako bikoteak izango dira lehian eta Bergarako bost lagun ere arituko dira. Iazko ekitaldian David Maestre bergararrak errekte onenaren saria jaso zuen.

Txapelketa bikotea jokatuko da. David Maestrek (26 urte) Valladolideko Emilio Modroñorekin osatuko du bikotea, Unai Arana (20 urte) eta Mikel Uribesalgo (19) elkarrekin arituko dira eta herriko beste bikotea Iker Agirrek (19 urte) eta Ander Muruamendiarezek (17) osatuko dute. Muruamendiarez izan ezik, gainerakoek iaz Bergaran jokatutako Euskadiko errekortadoreen txapelketan esku hartu zuten. David Maestrek errekte artistiko onenaren saria eskuratu zuen orduan. Tolosan ere saria jaso zuen.

Bikote bakoitzak lau minutuko tartea izango du: lehenbiziko minutuan errekteak egin beharko dituzte eta beste hiruretan bigantzen adarretan uztai gehien sartzen saiatu beharko dira. Gorputzaldi onean egotea eta bikotearen arteko elkar ulertzea ezinbestekoak direla diote. Bergararrak Radan, Nafarroan, izan ziren joan den domekan txapelketa gertatzen.



Unai Arana, Ander Muruamendiarez, Iker Agirre, David Maestre eta Mikel Uribesalgo.

ZEZENZALEAK TXIKITATIK

Bostak ere zezenzaleak ditugu txiki-txikitatik eta inguruko herrietako jaietan izaten diren zezen ekitaldietara joaten dira askotan. Davidek eta Mikelek San Fermi-netako entzierroan ere korritu izan dute. Daviden ara-

bera, «han ez nuen zezenik ikusi. Zezenak atzetik zetozela entzuten nuen, *kla kla kla*». Guztiek Pazkoetako entzierroetan laguntzen dute, *artzain* lanak eginez.

Tolosako errekortadoreen txapelketan ere izan ziren iaz herriko bikoteak eta

beren hitzetan, «eurekin, Tolosakoekin, eta gure artean ere *pike* sanoa dago, horrelakoetan ondo dator hori. Tolosakoek guk baino esperientzia handiagoa daukate, baina primeran pasatzen dugu. Aurten ere San Juantan hara joango gara».

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA-OPARIAK

Bidekurutzeta 16 BERGARA ☎ 943 76 23 94 - 12 65

**ONDO PASATU
BERGARAKO JAIETAN!**

Curro Reyes, toreatzailea:

«Bergarako zezen-plazatik garaile irten nahi dut»



Zezen plazan
Domekan
18.00etan

Jose Cascon salamancarra, Ivan Fandiño "El niño de la Antigua" bizkaitarra eta Curro Reyes ekuadortarradira Zezenzaleak taldeak aurtengo txekorketarako aukeratutako nobilleroak. Curro Reyes (18 urte) ilusioz beteta dator Bergarara, aurtengo denboraldian pikadoreekin debuta egiteko itxaropenaz.

Zelatan toreatzaile? Ekuadorren badago zezenetarako zaletasunik?

E. Gure aita, Luis De los Reyes, zezen-hiltzailea da, eta zaletasuna hortik dator kit. Txikitatik izan dut zezenetarako zaletasuna eta nire ametsa da toreatzaile ospetsu izatera iristea, nire izena Espainian eta Amerikan ezaguna izatea alegia.

Hamabi urte nituela etorri ginen Madrilerla bizi izatera, eta argi dago Espainian Ekuadorren baino baliabide gehiago dagoela. Ekuadorren ere badago zaletasun pixka bat. Gure aita han egon berri da toreatzen.

G. Noiz egin zenuen debuta?

E. 1998an, Cuencan, pikadore barik, eta joan den urtean bederatzitik txekorketa izan nituen. Aurten, berriz, Arlesen, Frantzian, eta Fuentenovillan (Guadalajara) toreatu dut: Arlesen nobillero onenaren saria eman zidaten eta Guadalajaran bi belarri eta buztana lortu nituen.



Reyes ekuadortarrak lan bikaina egin zuen aurtun Arleseko txekorketan.

G. Zer-nolako toreatzaile zaitugu?

E. Nire burua definitzea baino, nahiago dut zaleek egitea hori. Dena dela, adoretua naizela diote. Txekorrari ahalik eta gehien gertu-

ratzea gustatzen zait, txekorketan garaile irtetea urrea delako guretako. Norbera nobillero denean, arriskatu beharra dago.

G. Zezen-hiltzailea izatera heltzea nekeza da?

E. Oso. Ahaldunaren eta enpresariaren konfiantza irabazi beharra daukazu eta oso ondo gertatuta egon behar zara. Zortea ere ezinbestekoa da. Aurten pikadoreekin debutatu nahi dut.

G. Zein toreatzaile duzu gustuko?

E. Toretzaile-artea gustatzen zait gehien. Orain ari direnetatik, Curro Vazquez edo Ortega Cano. Rafael De Paulak, Curro Romerok edo Antoñetek ere toreatze dotorea egiten zuten.

G. Zelan jaso zenuen Bergaran toreatzeko gonbita?

E. Nire ahaldunak, Gerardo Roak, komentatu zidan eta ilusio handia egin zidan. Lehen aldia da Euskal Herrira etortzen naizela, Gasteizen, Bilbon edo Orduñan lagun dezente izan arren. Domekan ordezkoa izango den Ivan Fandiño ere ezaguna da eta espero dut zaleei ikuskizun ederra eskaintzea. Plazara irteten naizen bakoitzean, erronka da niretako. Bergaratik garaile irten nahi dut.

Gracian

Usaindegia - Mertzeria

Jai zoriontsuak!!

Bidekurutzeta 6 Tf. 943 76 10 25

JANTZIDENDA

LASAGABASTER

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

ETXE APAINKETA



- Automatismoak
- Garajeko atek
- Burdinazko pertsianak
- Urrutiko agente tresna
HOMOLOGATUAK
- Oinezkoen ateentzako
sistema automatikoak
- Konponketak



JUBAR[®]
ATEAK, S.L.

Tf.: 943 79 10 20 • Faxe: 943 79 08 17
Kataide industrialdea 18. 110 Postakutxa • ARRASATE

ELKAR

ELEKTRAGINTZA

**ZURE
ZERBITZURA!!**

Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.

BERGARA

Mizpildi 8
943 76 12 32



MIZPILDI



OKINDEGIA



Ondo pasa ditzazuela jaixak!

**Eta kafe
dastaketa!**

Matxiategi 1
943 76 72 73

XXIV. Euskadiko dantza sueltoko txapelketa

Euskadiko dantza txapelketan 27 bikote lehiatuko dira



S. Martin pl.
Domekan
11:30ean eta
17:30ean

Hogeita laugarren aldiz jokatuko dute hamabost urtez azpikoen Euskadiko dantza txapelketa Bergaran. Aurten, hogeita zazpi bikotek eman dute izena, horietatik, sei bergararrak. Goizean, 15 bikoterik onenak sailkatuko dira, eta arratsaldeko finalaren ostean jakingo dugu zeintzuk diren aurtengo txapeldunak.

Goizeko hamaika terdietan hasiko da txapelketa San Martin plazan, eta 17:30ean ekingo diote arratsaldeko saioari. Arratsaldeko saioaren ostean jakingo dugu aurtengo txapeldunak zeintzuk diren. Euskadiko hogeita zazpi bikotek eman dute izena, gehienak gipuzkoarrak, hogeita bost hain justu; Arabatik eta Bizkaitik bikote bana etorriko dira.

Bergarako partaideei dagokienez, berriz, Moises Aspiazu dantza taldeko sei bikotek esku hartuko dute domekako lehiaketan. Honako hauek hain justu ere: Josune Fernandez eta Alex Torre (14 urte), azkenengo bi urteetako txapeldunak; Izarne Medina eta Mikel Igartua (11 eta 12 urte); Hiart Bolinaga eta Andoni Elortza (12 urte; elgetarrak izan arren, Moises Aspiazu taldekoak dira); Ibane Baseta eta Jon Arrillaga (11 eta 12 urte); Marina Urriolabestia eta Aitor Miner (9 urte); eta Amaia Bolinaga eta Aritz Arrillaga (8 urte).



Josune Fernandez eta Alex Torre, azkenengo bi urteetako Euskadiko txapeldunak.

GOIZ ETA ARRATSALDE DANTZAN

Goizeko 11:30ean hasiko da txapelketa, esan bezala. Hogeita zazpi bikoteetatik, hamabost onenak sailkatuko dira arratsaldeko finalerako. 17:30ean izango da hori.

Bi saioetan fandangoa eta arin-arina dantzatu beharko dituzte; fandangoa

Udal Txistulari Bandaren laguntzarekin eta arin-arina Joseba Iparragirre eta Ander San Jose trikitilariak lagunduta.

Aurkezle lanetan, Maite Aristegi eta Monika Belastegi arituko dira. Epaimahaiari dagokienez, Euskal Dantza Biltzarreko bost kidek osatuko dute, eta eurek erabaki

beharko dute zein den bikoterik onena, baita zein bikotek daraman jantzirik dotoreena ere.

Txapelketa dantzarien gurasoek antolatu dute. Datorren urteari begira zerbait berezia prestatzen ari direla azaldu digute, izan ere, 25. aldia izango da, eta urteurrena ospatu nahi dute.



ZAIAZKO

TELEKOMUNIKAZIOAK

Jaixetan ondo pasau!!

Bideoetan, titolorik berrienak!

Teleforo Aranzadi 3, BERGARA.

Tf. 943 76 10 66

Aurtengo jaietan berritasun handia izango dugu. Handia, bi zentzutan: duen garrantziagatik eta tamainagatik. Izan ere, bi erraldoi berri estreinatuko dituzte Pentekostetan. Estreinaldirako, gainera, ekitaldi berezia antolatu dute: erraldoi, buruhandi eta kiliki konpartsen alardea. Zapatuan izango da, 18:30ean, eta Urretxu, Arrasate eta Bergarako konpartsek parte hartuko dute. Hortxe kaleratuko dituzte lehenengoz bi erraldoi berriak.

Udal arduradunek aspalditik zeukaten buruhandi, erraldoi eta kiliki konpartsa sendotzeko helburua, erraldoiei dagokienez, batez ere. Izan ere, bi bakarrrik zeuden, bikote baserritarra, eta beste birekin osatzea erabaki dute.

Mende hasierako gizon eta emakume oso dotoreak errepresentatzen dituzte, eskumako irudian ikus daitekeen moduan. Erraldoi berriak Mikel Ibarzabal panpinagileak egin ditu, udalak eskatuta. Izan ere, udalak Bergarako herriarendako propio egindako erraldoiak nahi zituen, ez seriean egindako bi erraldoi. Gauzak horrela, eta helburua mende hasierako bi kaletar dotore egitea izanik, garai hartako Eulalia de Abaitua argazkilariaren irudietan oinarritu da egilea erraldoiak egiteko. Jantziak, batez ere. Hark erretratatzan zituen pertsonen jantzietan. Emakumezkoarena, kasu, Eulalia de Abaituaren beraren irudi batean.

Gizonezkoarena egiteko, Ainhoa Garitano diseinatzaile bergararrari eskatu zion aholkua Mikel Ibarzabal erraldoien egileak.



Ongi etorri, Erraldoi jauna eta anderea

Zapatuan egingo den alardean aurkeztuko dituzte

Iturkintz Berri

INSTALAZIOAK: Iturkintza, Berogintza, Gasa

Jai zoriontsuak!

Amillaga 1 (B Pabilioia) 943 76 28 04 BERGARA

ALARDEA ETA KALEJIRA

Aspaldian ez da erraldoien alardirik egin Bergaran. Horixe izango da, hortaz, aurtengo berritasunetako bat jaietako egitarauan. Hiru konpartsak parte hartuko dute: Arrasate, Urretxu eta Bergarakoak hain justu ere. Arrasateko konpartsak lau erraldoi, hainbat kiliki eta dultzainero eta txistulari taldea ekarriko ditu. Urretxukoak, berriz, lau erraldoi. Bergarakoari dagokionez, lau erraldoi eta dultzainero eta txistulari taldeez egongo da osatuta. Horrez gain, Xamatx dantza taldeko eta Jai batzordeko hainbat kide ere izango dira alardean, eurak arduratuko dira-eta erraldoiak eramateaz.

Alardean arituko diren konpartsek ondorengo ordena jarraituko dute kalejiran: Udal Txistulari Banda, Bergarako erraldoi zaharrak, Urretxuko dultzainero eta erraldoiak, Arrasateko dultzainero, erraldoi eta kilikiak, eta azkenik, kalejira ixten, Bergarako dultzainero eta erraldoi berriak. Dultzaineroek kalejira joko dute, eta erraldoien dantzaldia



la hiru metro eta erdi eta 35-40 kilogramo inguruko pisua dute erraldoiek.

hastean, baltsak.

Hori guztia zapatuan izango da, 18:30ean. Horrez gain, baina, Pazko astelehenean, 20:00ak aldera, Bergarako konpartsa oso-osorik ikusteko aukera

izango dugu. Erraldoi, buruhandi eta kilikiek kalejira egingo dute. Buruhandiek, gainera, jantzi berria estreinatuko dute. Buru bakoitzari dagokion jantzia egin diote.<



Mikel Ibarzabal. Panpinagilea

«Zailtasun handiena tamaina izan da»**Egiten dituzun lehenengo erraldoiak dira. Nola joan da lana?**

Ezberdina da zerbait lehenengo aldiz egin edo esperientzia izatea. Baina, nire ustez, nahiko ondo joan da. Izan ere, materiala aurretik erabilia neukan. Zailtasun handiena tamaina izan da. Izan ere, ezberdina da txotxongiloak egitea edo erraldoiak. Proportzioei eustea ez da horren erraza. Esaterako, burua lurrean ikustea edo gorputz gainean oso ezberdina da; eta horiek guztiak kontuan hartu beharrekoak dira.

Zein material erabili duzu?

Egurra eta beira-zuntza, betiere, erraldoiek pisu handirik har ez dezaten. Gainera, Bilbo, Deustua, Arrasate... hainbat herritako erraldoiak ikustera joan nintzen badaezbada ere. Guztira 35-40 kilo pisatzen dute, eta ia hiru metro eta erdi luze dira. Ondo zainduz gero, erraldoiak bizitza osoa irauteko modukoak dira. Seriean egindakoak baino gehiago.

Zergatik mende hasierako kaletar dotoreak?

Udalak hala eskatuta. Baserritar bikotea egonik, kaletar bikote dotorea nahi zuten, baina ez seriean egindakoa, pertsonalatuagoa. Orduko janzkera kopiatzeko orduan ere, Eulalia de Abaitua argazkilariaren irudia eurek eman zidaten.



ONGI PASA
JAIK!



Lurre
Opari Donata
Bergara


943 76 46 48. Barrenkalea 27

Tomas Terre bilbotarra azken 50 urtean izan da Bergaran Bizitza osoa 'El flechazo' rekin

Tomas Terre 63 urteko bilbotarra ohiko bisitaria dugu Pazkoetan. Mutikotan gozokiak saltzera etortzen zen Bergarara eta aitak 'El flechazo' izeneko atrakzioa jarri zuenetik, urtero izan da Pazkoetan. Laster erretiratzeko ordua helduko zaiola-eta, 'El flechazo' orduan hilko dela dio.

Tomas Terreren aita, 'Terry' ezizenez ezagunagoa, karikatidak egiten ibiltzen zen herriz herri eta Tomasek berak aspalditik ezagutzen du Bergara. Mutikotan Bilbon trena hartu eta gozokiak saltzera etortzen zen. Sasoi hartan Vicente Zurutuza eta Josefa Errastiren etxean geratzen zen lotan: «Josefak musua emateko eskatzen zidan beti eta bizarra irteten zitzaidanerako errenta igoko zidala esaten zuen». Tomasek hamahiru bat urte zituela, haren aitak 'El flechazo' dardoaren atrakzioa jarri zuen eta ordutik hona Tomasek ez du Pazkoetan hutsik egin: «Gure aita erretiratu zenean emazteak eta biok hartu genuen atrakzioaren ardura eta ordutik hona herriz herri ibili gara Euskal Herriko jaietan, maiatzetik urria bitartean. Gure lan sasoa ez da oso zabala eta ahalik eta ondoen aprobeztatu behar da».

Gaur egun, gehienbat 12-14 urteko neska-mutikoak joaten zaizkiola dio Tomasek. Dardoena nagusiki gizonetzkoen atrakzioa izan dela onartzen du: «Lehiatze-



Tomas Terre, joan den urteko Pazkoetan ateratako argazkian.

ko atrakzioa denez, lehen, esaterako, koadrila handia etortzen zen eta gizonetzkoen artean lehian hasten ziren. Neskei ez zaie hainbeste gustatzen dardo tiroketa. Oso tiratzaile onak ezagutu ditut eta egokitu izan zait

haien semeak etortzea dar-doekin probatzera».

Hala ere, atrakzioaren urterik onenak atzean geratu dira. Tomasen hitzetan, «sasoirik onena 60ko hamakarkada izan zen. Gaur egun, gazteek beste gauza

batzuk egiten dituzte jaietan, tabernaz taberna ibiltzen dira, eta barraketara oso gutxitan etortzen dira, koadrilen egunean buelta-txo bat ematera agian».

ATRAKZIOA HILTZEAR

'El flechazo' atrakzioko dardo jaurtialdi bakoitzak 100 pezeta balio du eta irabazleek jeneralean pelutxeren bat eramaten dute sari gisa: «Lehen baziren egunetik egunera txartelak gordetzen zituztenak eta azken egunean beste sari handiago bat jasotzen zutenak».


Pazkoetan lan egitea egokitu zaionez, Tomasek ez dauka jaiez gozatzeko aukerarik: «Lan handien arratsalde eta gauz egiten dugu eta ez dut beste ezertarako astirik izaten. Mentalizatuta gaude eta badakigu jendea ondo pasatzen ari denean lan egin behar dugula».

Tomas laster erretiratu-ko da. Orduan, 'El flechazo' atrakzioari desagertzeko ordua iritsiko zaio: «Seme-alabek ikasketak egin dituzte eta ez dut erreleburik izango negozioarekin jarraitzeko».

GANTXEGI

Telesforo Aranzadi, 2. 943 76 00 79

Jai zoriontsuak bezero guztie!



2001-2002 ikasturterako

Bergarako ikastolen eskaintza bateratua

16 eta 20 urte bitarteko ikasleendako



BATXILERGOA


Modalitateak:

- Osasun eta natur zientziak
- Gizarte eta giza zientziak

Unibertsitaterako lau irteera:

- Zientifiko-teknikoa
- Osasun zientziak
- Giza zientziak
- Gizarte zientziak

San Martin plaza, 4
943 76 90 71
Faxa: 943 76 91 77
bergara@ikastola.net



Mariaren
Lagundia
Ikastola

GOI MAILAKO

HEZIKETA ZIKLOAK

- Gizarte integratzaileko goi teknikaria
- Haur hezkuntzako goi teknikaria

Irteerak:

- Unibertsitateko ikasketak
- Lan arloan murgildu

Aurrematrikulazio epea:
ekainaren 1etik 12ra

Espoloia,1
943 76 25 40 / 41
Faxa: 943 76 33 31
marilagikastola@euskalnet.net




BERGARAKO UDALA

ZURE ZERBITZURA

BERGARAKO UDALA

Ondo pasa Pazkuak!



UDALETXEA

Faxa: 943 77 91 63

e-posta: bergara@udal.gipuzkoa.net

Bulego Orokorrak	943 77 91 00
Alkatetza	943 77 91 01
Artxiboa	943 77 91 32
Auzoak eta mendiak	943 77 91 41
Euskara zerbitzua	943 77 91 66
Gizarte ongizatea, osasuna, enplegua eta kontsumoa	943 77 91 65
Hirigintza, obrak eta ingurugiroa	943 77 91 68
Idazkaritza	943 77 91 00
Kirolak	943 77 91 67
Kontuhartzailtza	943 77 91 64
Turismo bulegoa	943 77 91 28
Udaltzaingoa	943 77 91 06

OBRA ETA ZERBITZUAK

Faxa: 943 77 91 20

943 77 91 52

KULTUR ETXEA

Faxa: 943 77 91 69

e-posta: berg.liburu@udal.gipuzkoa.net

Gazte Informazio Gunea	943 77 91 57
Liburutegi nagusia	943 77 91 62
Ondare artistikoa	943 77 91 61


BESTE ZERBITZUAK

Eguneko zentrua (3. adinekoentzat)	943 76 21 40
Igerilekuak	943 76 20 51
Kiroldegia	943 76 56 41
Liburutegia (Osintxu)	943 76 23 76
Liburutegia (Angiozar)	943 76 16 19
Ludoteka-Udalekuak	943 76 23 76
Mizpirualde, zaharren egoitza	943 76 13 68
Udal euskaltegia	943 76 44 53

Pazkoetako kartel iragarleak

Pentekosteak eta artea karteletan uztartuz

Pazkoetako jai egitarauko irudiak Bergara eta jaiak uztartzen ditu. Baina ez da beti horrela izan, 1993a ezkerro baizik. Orduetik hona, Beart artista elkarteari eta lehiaketa irekiei esker, herri nortasuna hartu dute egitarauak.



Jesus Kalboetxeaga, 2001.

Herriko jaietako egitarauaren azala ilustratzeko erabili izan diren irudiak asko aldatu dira urtetik urtera. Herriarekiko lotura agerian uzten duten irudiak erabiltzen hasi dira poliki-poliki: Bergarako jai egitarauko azalak argi erakusten du Bergarako jaiak aurkituko ditugula han, eta ez inguruko beste edozein herrikoak.



Karlos Galarraga, 1993.




Elena Reifs, 1995.



Dani Laskurain, 1997.

Horra, jaiak iragartzeko udalak antolatu izan dituen kartel lehiaketan emaitza. Lehenengo urratsa 1993. urtean egin zuen udalak. Urte hartan erabaki zuen programaren azala Bergarako artista batek bere obra batekin ilustratzea. Horrela, Beart artisten elkartera jo, eta haien laguntzaz 1993tik 99ra arteko kartelak Bergarako artistek egin zituzten (94an eta 96an izan ezik).



Jon Andoni Urisabel, 1998.



Luis Laskurain, 1999.



M. Murgizu eta V. Pedraza 2000.

KARTEL LEHIAKETA IREKIA

Bide horri ekinda, 2000. urtean lehiaketa irekia antolatzeko erabaki zuen udalak. Lehiaketa irekian edonork esku har dezake, baina ba-

da ezinbestean bete beharreko baldintza bat: Bergarako herria eta jaiak uztartu behar dira.

Gauzak horrela, lehenengo lehiaketa ireki hartan Martin Murgizu eta Vane Pedrazaren lana aukeratu

zuten. Aurtan, Jesus Kalboetxeagaren kartelak iragarriko ditu hastear diren Pazkoak, bera izan baita irabazlea.

Nerea

Lentzeria • Kortse-denda • Bainujantziak

Simon Arrieta plaza 1 Tf. 943 76 19 52

Ondo pasau jaixak!



GIDE COLOR

ZURE PINTURA DENDA

✓ Egurra babesteko tratamendua

BERRIA

✓ Pintura artistikorako materiala



✓ Parketak, oholtza flotagarriak, moketak, sintasolak, alfonbrak.



✓ Zenefak pintatzeko txantiloiak.
✓ Paper pintatuak.



40 mila kolore egiten ditugu momentuan



Ordutegia:
08:00-13:00 eta 14:30-19:15 Zapatuetan: 09:30-13:00

Tf. 943 76 52 42 Faxa 943 76 56 17
Amillaga 5 (Renault ondoan)



50 urte baino gehiagoko esperientzia eta profesionaltasuna egunez egun frogatuak.

Iturgintza, gas natural, propano eta butano eta berogailu instalakuntzak.

Sukalde eta bainu berrizketak. Bainuko altzariak.

Jai zoriontsuak izan ditzazuela!

ITURGINTZA-BEROGAILUAK-GASA
BAINURAKO ALTZARIAK

Larrañaga
Eguren, B. M.

Juan XXIII
Tf. eta Faxe 943 76 11 88
20.570 BERGARA

rockeroo



Bideberrin
23:00etan

Aurtengo Pazkoetan ere ez da rock kontzerturik faltako Bideberrin. Herriko zein kanpoko musika taldeak arituko dira. Gaztetxean ere hainbat kontzertu izango dira, Txosna batzordeak antolatuta.



UK Subs.

haietako talde berberaz gozatzeko aukera izango dugu Bergaran. Aprobetxatu beharreko aukera, duda barik.

LA BROMA DE SATAN


1978an sortu zuten taldea. 1981ean euren lehendabiziko LPa grabatu eta hurrengo urtean argitaratu zuten. 1985ean desegin zen taldea, baina kide guztiek jarraitu zuten musikan, talde desberdinetan. Hala ere, harrezkero hiruzpalau maketa grabatu dituzte, eta orain, Pazkoetan, orduko talde hura ikusteko aukera izango dugu Bideberriko gunean. Urte hauetan guztietan hainbat aldaketa gertatu ondoren, gaur egun, Pepino, Fernando, Ixma eta Goma musikariek osatzen dute La broma de Satan.

FLY SHIT

Hardcore punk-rock estiloa lantzen du Bergarako talde honek. Duela sei bat urte elkartu ziren, eta kide baten garajea hasi behar izan zuten entseatzeko.

Gustuko dituzten taldeen artean, BAP, Poison Idea, RKL... Honako gazte hauek osatzen dute rock talde bergararra: Txisko (gitarra), Igor Setien (ahotsa), Ander Elortza (gitarra), Jon Ostolaza (bateria) eta Heloy Galan (bateria).

Aipatzekoa da, bestalde, duela gutxi CDa grabatu eta argitaratu dutela, Sorraluzeko Gaztelupeko Hotsak disko etxearekin; CD hori salgai dago Bergaran.



Sin City Six

Pleasure Fuckers taldetik sortu zen. Espainiar, euskaldun, amerikar eta ingelesez osatutako taldea zen *Pleasure Fuckers*, eta munduko punk rock zirkuitu guztietan ziren ezagunak. 1999an biru single argitaratu zituzten: *Sin City Six*, *Cinderella's Gone* eta *Tonight Tonight*. Taldekideak: Lee Robinson (ahotsa), Norah Findlay (gitarra), Angel Ramos (bateria), Mike Sobieski (gitarra) eta Barnaby Bowles (baxua).

EGUBAKOITZA 1

UK SUBS

Lau kidek osatzen dute punk talde britainiar hau: Charlie Harper (ahotsa), Steve Slack (baxua), Nicky Garrett (gitarra) eta Paul Davies (bateria) musikariek, hain zuzen ere.

Duela 25 urte sortu zuten taldea, 1976an, United Kingdom Subversives izenarekin. Sex Pistols eta Damned taldeen eraginpean sortu zen; berehala laburtu zuten hasiera hartako izena, eta UK Subs izena jarri zioten. *Farewell to the Rox* izan zen euren lehendabiziko lana. Gero, Gem Records disko etxearekin fitxatu, eta garai hartako punk talderik onenetakoa eta ezagunenetakoa bihurtu zen. Geldialdi luzea egin ondoren, hasiera

ETXE PARE-BILINTX



LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA

ZAPATUA 2

BLACK HALOS

Duela sei bat urte sortu zen punk-rock talde hau. Hasieran, Black Market Babies izena jarri zioten. Single bat edo beste argitaratu ondoren, 1999an, taldearen izen berbera zeraman diskoa argitaratu zuten. Azken diskoa duela hilabete gutxi kaleratu zuten, *The Violent Years* izenekoa, eta euren disko erabakigarritzat har daiteke. Oso kritika onak jaso ditu diskoak. Bost musikarik osatzen dute taldea: Rich Jones (gitarra eta ahotsa), Billy Hopeless (ahotsa), Rob Zgaljic (bateria) eta Matt Camirand (baxua eta ahotsa).

SEX MUSEUM

1986an sortu zuten taldea. Zapatuan, zuzenean ikusteko aukera izango dugu, eta horixe da, gainera, zuzeneko emanaldiak, hain zuzen ere, euren berezitasena, taula gainetan eskarmentu handia daukate eta. Esparrago Chico 96ko izarretako bat izan zen, eta Festimaden ere esku hartu zuen.

Cannonballs

Oriedoko taldeak zapatu gauean joko du Bideberrin. Duela zazpi bat urte sortu zuten, eta duela bi urte lau abesti batzen zituen mini-singlea kaleratu zuten: *Rock racing machine*. Zuzeneko emanaldietan talde bortitza da, soinu basatia eta beroa gailentzen da. Estiloa defintizerakoan, 50eko hamarkadako rock-and-rolla eta 60ko hamarkadako garage-punkaren arteko konbinazioa dela esan daiteke. Bost lagunek osatzen dute *The Cannonballs*: Lolohurricane (ahotsa), Gímlet Feito (baxua), Mr. Gonsales (bateria) eta Guaracha King eta Brodawas (gitarra).



COOL PANIC

MADE OF STONE



Cool Panic.

Honako musikari hauek osatzen dute Sex Museum: Fernando Pardo (gitarra eta ahotsa), Miguel Pardo (ahotsa), Marta Ruiz (hammonds eta sekuentziadorea), Pablo Rodas (baxua) eta Roberto Loza (bateria).

COOL PANIC

Hilabete baino gutxiago da Cool Panic talde bergararrak lehen diskoa, *Made of stone*, grabatu duela. Saffety Pin disko etxearekin grabatu dute, nahiz eta oraindik ez duten kaleratu. Musika ingelesez sentitzen ei dute, eta halaxe abesten dute. Honakoak dira taldekideak: Alex Muela (ahotsa eta gitarra), Itziar Iturbe (ahotsa), Mikel Azkargorta (baxua), Aitor Pedrejon (gitarra) eta Iker Narvaez (bateria).

UKO

Bergarako talde honek metala jorratzen du. Honako bost lagunek osatzen dute taldea: Aimar (baxua), Mikel (gitarra), Iban (gitarra), Ibon (bateria) eta Mikel (ahotsa). Duela urtebete osatu zuten taldea 16-17 urteko gazteok.

NON DEMONTRE

Duela sei urte osatu zuten taldea bost lagunek. Euren jarduera musikala kontzertuetan oinarritu zen, batik batik, lehen lau urteetan. Baina tarte horretan maketa ere grabatu zuten. Lehen LPa 2000ko maiatzean grabatu zuten, Non demontre izenarekin.

EGITARRAUA

Egubakoitza
23:00:

Iskanbila
Zein?

Zapatua
23:00:

Non demontre
Noraezean

gaztetxeko kontzertuak



Ortzadar

Kortsetegia, mihisedenda, pijamak eta osagarriak

Ibargarai 8. 943 76 54 73



Domeka
23:00:
Snobs
Barleyjuice
Supercools

Astelehena
19:00:

Elektrotuna
23:00 (800 pezeta):
Peepshows
Psychopunch


Martitzena
23:00:
Sekula Santan
Uko

SUPERCOLS

Duela urtebete sortu zuten talde hau. Bergarako lau gaztek osatzen dute: Aitor Lagoma (ahotsa), Gaizka Tabuenca (gitarra), Iker Narvaez (bateria) eta Alex Abajo (baxua). Punk-rock musika jorratzen dute. Gustuko dituzten taldeen artean, Señor No eta Aerobith, esaterako.

PEEPSHOWS

Suediatik datorkigu talde hau. Zuzeneko emanaldietan berebiziko energia erakusten dute, gitarraekin sekulako erakustaldiak egin eta rock-and-rollerako duten sena agerian utzita.



ASTELEHENA 4

REQUIEM

Josek (gitarra), Martinek (ahotsa), Vanessak (ahotsa), Martin de Goñik (teklatura), Ciruk (baxua) eta Aitorrek (bateria) osatzen dute Bergarako Requiem taldea. Duela hamar bat urte osatu zuten Requiem, nahiz eta ordutik hona hainbat aldaketa eta geldione ere izan dituzten.

Euren musika "rock siniestro" moduan definitzen dute, eta The Cult, Sister of Mersy edota The Cure taldeak dituzte gustuko, besteak beste. Herriko talde batez gozatze-ko hitzordua, hortaz, astelehen gauean, Bideberriko gunean.

X-AT


Lau bat urte dira Bergarako talde hau sortu zutenetik. Rock gogorra dute gustukoan, eta horixe da, hain justu, astelehen gauean Bideberri eskainiko digutena.

Gustuko dituzten taldeen artean, Sepultura, Hamlet edo Anestesia aipagarrienak. Labe-garrietako eskola dute euren topagune, eta hantxe elkartzten dira astean hiruzpalau aldiz euren abesti eta emanaldiak prestatzeko. Lau kidek osatzen dute X-AT: Aitor (ahotsa), Iker (baxua), Dubi (bateria) eta Manu (gitarra).

AUDIENCE

Bizkaitarrak dira Audience. Gernikatik datokigu hain zuzen ere. Musikari gazteak dira, ez, ordea, hasiberriak. Dagoeneko bi maketa dituzte kalean, eta Villa de Bilbao rock lehiaketan ere bi aldiz esku hartu dute, arrakastatsu, gainera.

Euren azken maketa, *Gag a day* izenburupean argitaratu dutena, Arrasateko Shot estudioan grabatu dute. Bost abesti bildu dituzte maketa horretan, eta post rock eta rock arty estiloetan koka ditzakegu maketako abestiotik, euren esanetan. Euren eruduztat dituzten musika taldeen artean, Tortoise, Sonic Youth, Galexico eta Shellac aurkitzen ditugu, besteak beste. Antolatzaileen ustez,



Ñaco Goñi

Bluesa maite dutenendako aukera paregabea da astelehenekoa. 1980ko hamarkadan, Tonky Blues Band taldearekin batu zenetik hona, Ñaco Goñik ez dio harmonika jotzeari laga. Azkenaldian Los Bluescavidas talde madrildarrarekin dibardu.

aurtengo Bideberriko rock kontzertuetako ezustekoa izan daiteke talde gernikarra. Hortaz, badakizue, astelehenean duzue hitzordua Audience, Ñaco Goñi eta Bergarako X-AT eta Requiem taldeak aurrez aurre ikusi eta entzuteko aukera.



Requiem.



OGIZUN
koop. elk.
okindegia

San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49

Zubillaga, 10
OÑATI
943 78 24 13

Nueva Alaska, Tarantella eta Paco Formoso

Dantzarako hiru talde aukeran, Espoloian eta San Martin plazan

Pazkoak 2001 
Espoloian
 Zapatu eta astel.
S. Martin pl.
 Domekan
 23:00

Rock kontzertuez gain, bestelako musikak ere izango du bere tarte aurtengo Pazkoetan. Espoloia, ohi bezala, dantzarako gune bilakatuko da, baita San Martin plaza ere. Hiru camp dantzaldi izango dira, Nueva Alaska, Tarantella eta Paco Formoso taldeekin, hain zuzen ere.

Tarantellaren eskutik izango dugu jaietako lehen camp dantzaldia Espoloian. Duela hemeretzi urte sortu zuten orkestra. Orditik hona aldeketa ugari izan du, garrantzitsuena duela hiru urte. Izan ere, orkestra handitu beharra zegoela ikusi eta, gaur egun, 10 musikarik osatzen dute Tarantella. Jesus, Pili, Pedro eta Bayas dira sortzaileetako lau, hasiera-hasieratik egungo taldean segitzen duten bakarrak. Kantatzeaz gain, era hone-tako orkestra gehienek moduan, dantzek eta ikuskizun-ek osatzen dute euren camp eskaintza.



Paco Formoso mariachia Passarela orkestrarekin arituko da domekan.

PACO FORMOSO MARIACHI

Domekan ere izango da dantzarako aukera, San Martin plazan, kasu honetan, Paco Formoso mariachiarekin. "El General" izenez ezagunagoa, urtetan "Duo Gala"ko partaide izan ostean, Passarela orkestra errioxarrarekin dihardu azkenaldian, eta orkestra horren laguntzarekin eskaini-



Tarantellakoek musika eta dantzak uztartuko dituzte zapatuan Espoloian.

ko du bere emanaldia Pazkoetan ere. Mariachia izango dugu nagusi, hortaz, domeka gauean San Martin plazan. Baina bestelako musika ere lantzen dute, dantzarako aproposa betiere.

Talde madrildarra da Nueva Alaska, astelehen gauean San Martin plaza giro-tuko duen orkestra. 1985. urtean sortu zuen Angel Lasherasek. Hainbat urte eman zituen beste orkestra batzuetan musikari gisa, eta duela hamasei bat urte orkestra propioa osatzea erabaki zuen.

Baina talde horrek ez du musika saio hutsa eskaintzen, harantzago doa. Ager-tokia ikuskizun toki bilakatzeko dute, musika eta dantza uztartuz.

Aipatzekoa da, bestetik, Paola Luchenak orkestra horretan egiten duen lana. Izan ere, bera da ahotsa jarri eta koreografiak prestatzen dituen, besteak beste. Guztira, bederatzi lagunek osatzen dute orkestra, musikariak eta dantzariak kon-tuan hartuta.

NINIKA

*Pentekoste jai zoriontsuak
 izan ditzazuela denok!*

LOREAK MUNDU
 OSOAN



INTERFLORA

loradenda

*Jaiotze-ospakizunak, ezkontzetako eliza
 eta jatetxea... dena apainduko dizugu!*

Ramon Maria Lili 8. Tf. 943 76 10 01



ARDATZA

Brikolajea

Masterreka 4, behea Tf. 943 76 18 93

ONDO PASAU JAIXAK!



*Egurrezko
materiala
eskuz pintatzen
dugu.
●
Eskulanetarako
gaiak.*

AZKARATE
AROTEGIA
Arotzak gara.



**MAKINA
ERREMINTAREN
INSTITUTUA**

**INSTITUTO
DE MAQUINA
HERRAMIENTA**

INFORMAZIOA:

San Roke Auzoa, 1. ELGOIBAR, Gipuzkoa
Tel.: 943 744 132. Faxe: 943 744 153
Posta elektronikoa: amaia@fmh.es
www.fmh.es

2001-2002 ikasturtea

HEZIKETA ZIKLOAK

GOI MAILA (A eta D ereduak)

- Proiektu mekanikoen garapena
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Industria ekipoen mantentze lanak

ERDI MAILA (A eta D ereduak)

- Mekanizazioa

Ekainaren 5ean atek zabalik, 19:00etan



Izena emateko epea: ekainaren 1etik 12ra, biak barne

BOLU SUKALDEAK

AENOR



Produktu zertifikatua



AENOR



Enpresa Erregistratua
ER-11842/99

2000 eguneko
garantia.
Aurrekontua
konpromiso
barik.

Bolu, 22-behea. BERGARA. Telefonoa eta faxa: 943 76 27 02



*Matsiategi 4.
Tf. 943 76 57 99*

*Lurradero 2.
Tf. 943 76 01 26*



*Lantokia:: Amillaga kalea
Tf. 943 76 72 28*

Bergara

**IRALA
Autozerbitzua**

*Trizar pasealekua, 3
Tf. 943 76 10 71*



OLABE

okindegia - gozotegia



Dar-Dar produkzioen eskutik...

Alizia bitxikerien lurraldetik San Martin plazara etorriko da

PAZKOAK 2001

X. Munibe pl.
Zapatuan
17:00etan eta
Domekan
19:30ean

Antzerkiak ere bere lekua izango du Pazkoetan. Bi euskal antzerki talde izango ditugu geurean. Zapatu arratsaldean Zirko ttipia *Munduko malabaristenak* lanarekin, eta domeka arratsaldean Dar-Dar Produkzioak-ek *Alizia bitxikerien lurraldean* antzezlana gozatzeko aukera eskainiko digu.

Dar-Dar Produkzioak-ek Xabier Munibe plaza girotuko du jaietako domeka arratsaldean *Alizia bitxikerien lurraldean* antzezlana-rekin, 19:30-etik aurrera.

Lewis Carroll idazlearen klasikoan oinarritutako egokitza-pena eskainiko du Dar-Darrek. Taulagainean aktoreak eta era guztietako txongiloak tartekatzen dituzte, baita ikusleen parte hartzea ere, hitz joko, abesti eta abarrekin.

Horrekin guztiarekin, Dar-Darrek kultura unibertsaleko bi pertsonaia hurbildu nahi ditu umeengana: Lewis Carroll idazlea eta Mozart musikaria. Lewis Carroll antzezlaren bidez, eta Mozart ikuskizuneari entzun daitezkeen *Martxa Turkoa* eta *Txirula Magikoa* obren bitartez.

TXALUPA BATEAN JAI OA

1862. urtean, uztaileko arratsalde batean, Charles Lutwidge Dodgson matematika irakaslea (Lewis Carroll izenez ezagunagoa) Liddell



Alizia bitxikerien lurraldean antzezlaren irudi bat.

ahizpekin txalupan paseatzen irten zen. Hura izan zen literatura unibertsalaren lanik garrantzitsuenetako baten abiapuntu. Han sortu zen *Alizia*.

Carrollek Aliziarandako sortu zuen mundu miresgarrian, bada pertsonaia arraro eta berezi ugari: Cheshire katua, Kapelagile Eroa, Mar-

txoko Erbia... Horiek guztiak domekako antzezlenera ekarriko ditu Dar-Darrek.

MALABARISTAK

Iruñeko Zirko Ttipia taldea ere izango dugu Pentekoste jaietan. Zapatuan izango ditugu geurean, Xabier Munibe plazan.

Munduko Malabariste-

nak lana jokatzeko dute. Adin guztietarako ikuskizuna da, gaztetxo zein nagusi iruindar hauen lanean. Taldeak bi kide ditu, eta diaboloa, uztaiak, zinta eta hainbat instrumentu lantzen dituzte.

ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

Oinetan arazorik ez izateko,
gurean daukazu plantilla eta oinetako aukera zabalena.

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34

Miguel Lazkano, parte hartzaile beterranoenetako bat

«Gatzatzea da bakailaoaren sekretua, gatzari puntua hartzea»



Hasieratik esku hartu izan du Miguel Lazkanok sukaldaritza lehiaketan Pertxa elkartearen izenean. Urtero bikote ezberdina izan du lagun bakailaoa prestatzen. Nahiz eta ez duen inoiz irabazi, gustura esku hartzen ei du, horixe da-eta, bere ustez, garrantzitsuena: parte hartzea, alegia.

Hasiera-hasieratik esku hartu izan duzu lehiaketan. Zelan animatu zinen?

E. Lehendabiziko urtean ez dut uste esku hartu nuenik, baina bai, esan daiteke hasieratik esku hartu izan dudala, duela 23 bat urtetik. Garai hartan elkarteko zuzendaritzan nengoen, eta norbaitek esku hartu behar zuela-eta, geu animatu ginen. Bi talde egiten genituen: bikote bat Pertxa elkartearen izenean joaten zen, eta beste bat Hermandadearen izenean. Orduan, udalak berak jartzen zuen bakailaoa; orain, oster, guk geuk erosten dugu.

G. Sekula irabazi duzu?

E. Ez. LEmaitzarik onena bigarren saria izan da. Baina kontua esku hartzea da. Irabaztea beti hartzen da gustura, baina profesionalak ere ez gara-eta...

G. Beti bikotekide bera-rekin jarduten duzu?

E. Ez, ia beti bikotekide ezberdinarekin: Kikiorekin, Jesus Mari Egurenekin, Jose Perezekin, Jose Mari Etxe-



Miguel Lazkanok hasieratik esku hartu izan du, Pertxa elkartearen izenean.

berriarekin... Aurten, Jose Mari Etxeberria "Etxebe" izango dut lagun.

G. Zein da bakailaoa prestatzeko sekretua?

E. Ondo gatzatzea, ga-

tzari puntua hartzea. Gatzetan sartu, eta hiruzpalau egunean, egunean bi aldiz gatzatzea behar zaio.

G. Urtero berdin prestatzen duzue?

E. Bai, antzera; hala eta guztiz ere, saltsa zelan ateratzen den arabera, desberdin geratzen da bakailaoa, baina prestatu, beti antzera.

G. Bakailaoari lagun egiteko edaririk egokiena?

E. Esaten dute txakolina dela egokiena, baina guk ardo beltzarekin jaten dugu. Izan ere, lehiaketaren ostean, elkartean bazkaria edo afaria egiten dugu, egunean bertan edo hurrengo egunean.

G. Bakailaoaz gain, zein da zure espezialitatea?

E. Legatza, bildotsa...elkartearen koadrilan jateko prestatzen ditugunak. Legatza, jeneralean, labean prestatzen dut, saltsan. Eta bildotsa ere, labean.

G. Non ikasi zenituen sukaldeko lanak?

E. Etxean. Emazteak irakatsi dit niri. Gero, elkartearen praktikatu izan dut.

G. Etxean nork prestatzen ditu otorduak?

E. Jeneralean, emazteak. Nik ere egiten dut zer-bait, etxean bakarrik nagoenean.




LASA
Jatetxea

Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu

OZAETA JAUREGIA Tfnoa: 943 76 10 55 Faxa: 943 76 20 29



Ibargarai 11-13 BERGARA
Telefonoa eta faxa: 943 76 70 58



ondo pasau danok jaiquetan!



BILBO garraioak

Bergara-Bilbo
eguneroko
zerbitzua

Partikularrendako
eta
industriendako



Leizariako
San Lorentzo 19, 3C.
Telefonoa:
943 76 35 74. Mugikorra:
609 479 443

Ondo pasau danok jaixetan!



LAGUN

ARROZTEGIA

Mekolalde 57. 20570 BERGARA

☎ 943 76 08 10 (Tailerrekoa)

☎ 943 77 02 43 (Etxekoa)


Ateak

Leihoak

Sukaldeko armairuak

Horma armairuak

Era guztietako arotz lanak



Amaiur Sainz, Pegatina lehiaketako irabazlea

«Jende asko dago birjinitatea galtzeko»

Amaiur Sainzek irabazi du Jardunek jaietarako antolatutako pegatina lehiaketa. Amaiurren **Galdu zure euskal birjinitadiaz** leloak koadrilen blusak apainduko dituela jakiteak ilusio handia egiten dio, gainera. Euskaraz ez dakitenei eta jakin bai baina erabiltzen ez dutenei zuzenduta dagoela azaldu digu.

Nola bururatu zitzazun pegatina lehiaketako esaldi irabazlea?


E. Lagunekin egindako afari batean pegatina lehiaketaren gaia atera zen. Hortxe hasi nintzen pentsatzen esku hartzea. Horren ostean, Arrano tabernan geundela, esaldiak uzteko kutxa ikusi nuen, eta hori erabakigarria izan zen esku hartzeko. Ordurako, gainera, nahiko mamituta nuen esaldia, batez ere euskaraz ez dakien eta jakin bai baina egiten ez dutenengan pentsatuta.

G. Zer adierazi nahi izan duzu esaldi horrekin?

E. Jende asko dago euskaraz dakiena baina erabiltzen ez duena. Baita, Euskal Herrian bizita ere, euskaraz ez dakienik. Bi jende multzo horiei zuzenduta dago, batez ere, esaldia.

Bestalde, esaldia zuzena dela esango nuke, nahiz eta hitz jokoa erabiltzen dudana 'birjinitadiaz galdu' diodanena. Sexuarekin eta euskarekin jolasten dut.

G. Jende asko dago, hortaz, 'euskal birjinitadiaz' galtzeko?



Amaiurrek 23 urte ditu, eta aurtan, bigarrenkoz aurkeztu da lehiaketara.

E. Bai. Behar genukeena baino gehiago.

G. Aurretik ere esku hartu duzu lehiaketan?

E. Bai. Iaz ere esku hartu nuen. Baina ez dut esaldia gogoratzen. Oso polita da lehiaketa, denak pegati-

na horrekin ibiltzea jaietan, norberak egindako pegatinarekin ibiltzea-eta...

Gainera, urte asko daukan lehiaketa izanda, ohitura bihurtu da pegatina lehiaketa, eta nik uste dut zain egoten garelara Pazkoetan

pegatinaren esaldia zein izango den jakiteko. Oso polita deritzot.

G. Zein da orain arte Jardunek Pazkoetan kaleratu izan duen pegatinetatik, gehien gustatu zaizuna?

E. Iazkoa, Mireia Lizaraldek eta Idoia Elortzak egin zutena: *Galtziak min? Ba... eñ.*

G. Saria jaietan gastatu duzu ala Saloura joango zara?

E. Jaietan gastatuko dut. Jaietan herrian egotea gustatzen zait.

G. Eta zer da jaietatik gehien gustatzen zaizuna?

E. Barrakak asko gustatzen zaizkit. Urtero ematen dut bueltatxo bat barrakaren baten. Horrez gain, lagunekin ibiltzea ere gustuko dut. Arratsaldeko giroa ere oso ondo dago.

G. Gauetz irteera ere gustatuko zaizu, bada? Zer egiten duzu?

E. Bai. Txosnetan eta tabernetan ibiltzen naiz. Gainera, oso gaupasazalea naiz. Zapaturokoa esango nuke.

Eta, jakina, aurtengo jaietan ere bat edo beste egingo dut.

ERLOJUDENDA

Ondo pasau jaixetan!!

AINH



A

Boni Laskurain 2 ☎ 943 76 47 40

BITXITEGIA

Azken urteotako ohiturari eutsiz

San Esteban Elkoartiko jaia ospatuko da domekan Elorregin



Jende askok ez du ezagutuko Elorregi auzoan dagoen San Esteban ermita. Urtero, Pazkoetako domekan, San Esteban Elkoartiko jaia ospatzen da hantxe, eta nagusiki auzotarrak biltzen dira, Elorregiko meza San Estebanen egiten delako egun horretan. Auzotarrek hara joateko ohiturari eutsi diote.

Elorregiko San Esteban ermita Ipiñarri base-rritik gora dago, Deba erreka zeharkatzen duen zubitik pare bat kilometrora, hain zuzen. Ermita ez dago oso ondo, baina adituek barroko estiloko erretaula goraiatu izan dute. Hainbat agiriren arabera, ermita XVII. mendearen amaiera edo XVIII. mendearen hasierakoa izan daiteke. Ermitaren gaineko lehen erreferentzia 1802koa da. Parean dagoen Elkorobarrutia baserrikoak (Elkoarti izenarekin ezagunagoa) dira ermitaren jabeak. Baserria XVI. mendekoa da, eta Jose Mari Mujika eta Angelita Alberdi senar-emazteak bizi dira. Baserriak eta ermitak armarrri bera daukate.

Lehen, Pazkoetako astelehenean ospatzen zen San Esteban Elkoartiko jaia, baina 1987. urtetik aurrera Pazkoetako domekan izaten da ospakizuna. Karlos Ostolaza zumaiarrak 19 urte daromatza Bergaran apaiz lanean eta domekero Elorregin meza esaten duenez, Paz-



Eguraldi ona bada, meza ermitaren kanpoaldean egingo dute.

koetako domekan San Esteban ermitara joaten da. Eguraldi ona bada, ermitaren kanpoaldean izango da me-

za, eguerdian. Mezaren ostean, *lunch*-a eta umeendako jokoak izaten dira eta, bien bitartean, Josu Okina

txistuarekin aritzen da giroa alaitzen, baserria eta ermita arteko plazatxoan. Urtero 60 lagun inguru batzen dira.

Josu Okina orain dela 30 bat urte hasi zen San Esteban ermitako jaian esku hartzen. Josuk komentatu digunez, «ia familiar ospatzen den jaia izaten da. Eguna, beharbada, ez da aproposena, Pazkoak direlako, eta nagusiki auzotarrak izaten dira etortzen direnak. 15 bat urte nituela hasi nintzen txistua jotzen, Agustin Goenagarekin. Orain dela gutxi arte erromeria ere izaten zen».

UMEAK SENDATU

Gipuzkoako ermiten liburuan Antxon Agirre Sorondok jasotzen duenez, belarrietako gaixotasunak zituzten umeak sendatzeko, inguruko amak ermitara joaten ziren aspaldi. Era berean, sarritan negar egiten zuten umeak ermitara eramateko ohitura zegoen, «sustoa kentzeko». Askotan, amak asto gainean joaten ziren ermitaraino.



Aprobetxa itzazu
udako eskaintzak

RENTERI
TINDATEGIA



Ikerleku 4, behea (Novedadeseko kantoia) 943 76 19 68

Zure konfidantzazko tindategia. Gure esperientzia eta profesionaltasun guztia zure zerbitzura.





Miguel ALTUNA institutua



2001/2002 ikasturterako
Hezkuntza-eskaintza

kalitateko eskaintza



GOI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK

- Administrazio eta finantzak
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Proiektu mekanikoen garapena
- Plastiko eta kautxugintza
- Idazkaritza (bi hizkuntza: ingelesa eta frantsesa)

ERDI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK

- Mekanizazioa
- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak
- Administrazio kudeaketa

Aurrematrikula epea: ekainaren 1etik 12ra
Ordutegia: 09:00etatik 13:00era

- Norberaren gaitasun eta nahien arabera egokitutako ibilbideak
- Behar diren baliabideekin
- Bide eta ate guztiak zabaltzen dituzten ikasketak
- Eskola publikoa: integratzailea eta anitza

Miguel Altuna Institutua. Ibargarai, 1. Tel. 943 76 24 91 eta 943 76 38 40. Faxa: 943 76 38 41.
Posta elektronikoa: imaltuna@sarenet.es eta 013020aa@hezkuntza.net
www.imaltuna.com

Berri gehiago nahi baduzu deitu gure telefonoetara edo etorri maiatzaren 30ean 18:00etan: **Ateak irekita** izango dituzu!

Almera
Tino



ALMERA TINO. GERTUKOEK BANATZEN ERAKUTSI DIZUTE. ORAIN ESKATU EGITEN DIZUTE.

ZURETZAT GAUZAK ALDATU EGIN DIRA. DAGOENEO EZ ZAUDE BAKARRIK. ERANTZUNKIZUNAK DITUZU BAINA HORREGATIK EZ DIOZU MOTOR HANDI BAT DUEN AUTO BATI UKO EGINGO. GERTUKOENTZAT ERE AUTO HANDI BAT BEHAR DU IZAN. ZURE FAMILIAKO BAKOITZA GARRANTZITSUA SENTIARAZIKO DUEN AUTO BAT. MARRAZTEKO EDO IRAKURTZEKO BALIO DUTEN MAHAI TOLESKORRAK, PANPINAK, MAPAK, LIBURUAK, POLTSAK EDOTA

JOKUAK GORDEZTEKO MILA TXOKO, MUNDU ZABALA MIRESTEN ERAKUTSIKO DIZKIGUTEN LEHIO HANDIAK. ZUK EMATEN DIEZUN SEGURITASUNA EMATEN DUEN AUTOA. ZEUK EMATEN DIEZUN GARANTIA BERTINAREKIN. BERAIENTZAT NAHI DUZUN EROSOTASUNA LORTZEN LAGUNTZEN DUEN AUTOA... HORRELAKOA DA NISSAN ALMERA TINO. GEHIEN MAITE DITUZUNEKIN ETA GEHIEN MAITE ZAITUZTENEKIN BIZITZEKO ETA GOZATZEKO AUTOA.

ALMERA TINO	Prezioa
1.8 COMFORT	2.634.000 pta.
2.2 DI COMFORT	2.834.000 pta.
2.0 AMBIENCE Automatikoa CVT	3.204.000 pta.



Almera
gama
zabala...



SEE THE CHANGE

5 URTEKO
BERMEA
KM MUGARIK GABE

ALMERA 3/5 ate 1.970.000 pezetatik aurrera*
ALMERA Sedan 2.092.000 pezetatik aurrera*

*Jendearentzako prezio gomendatua (BEZ, matrikulazio-zerga, garraioa eta Nissan asistenta barne eta 5 urteko bermea kilometro mugarik gabe), barne. Penintsularako eta Balearetarako baliagarria.



ALDIBI AUTOAK, S.A.
ARRASATE-BERGARA-ELGOIBAR

Zigarrola 1 - Tel.: 943 71 20 02. Faxe. 943 79 65 65.
aldibi@nortekar.com



Nortekar

Debagoieneko telebista ere jaietan


GOITBk albistegi berezia eskainiko du Bergararik, Pazkoak direla eta

Hainbat saio berezi eskainiko ditu GOITBk Bergararik. Jaietan egon nahi izan dute GOITBkoek, eta hiru saio eskainiko dituzte: albistegia Bergarako plazatik eskainiko dute, Xeleberrri ere Bergararik egingo dute, eta dantza sueltoko txapelketa ere grabatuko dute, eguazten gauean eskaintzeko.

Astlehenean, hilaren 4an, Bergarako plazan grabatuko dute GOITBko albistegia. Egunero emititzen dute Debagoieneko albistei buruzko saioa zuzenean. Astelehenekoa, baina, berezia izango da: ohiko platonik irtengo dira, eta Bergarara etorriko dira saioa grabatzera.

Ez dute, hortaz, zuzenean eskainiko. Arratsaldeko 18:00etan hasiko dira grabatzen, eta jendeak bertatik bertara albistegia nola grabatzen duten ikusteko aukera izango du San Martin plazan. Hala ere, 15:00etan hasiko dituzte prestatze lanak.

Bi atal izango ditu albistegiak: batetik, ohiko saioa grabatuko dute, hau da, Debagoienak egunean eman dituen albistegiak eskainiko dituzte; bestetik, ohiko saioari atal bat gehitu diete, Bergarako jaien gaineko atala hain zuzen ere. Atal horretan Bergarako jaiak asteburuan eman dutena laburbilduko dute.



San Martin plazan jarriko dute albistegia grabatzeko "platoa".

Iluntzean emitituko dute albistegia, egunero moduan, 20:00etan.

'XELEBERRI' ETA DANTZA TXAPELKETA

'Xeleberrri' saioa ere grabatuko dute Bergarako jaietan. Umorea da saio horren ardatz. Bergarako jaiak aprobetxatu eta herrian bertan grabatuko dute saio hori ere. Kalez kale ibiliko dira kazetariak inkestak egin eta kaleko giroaren berri ematen. Bitorianatxoren jaitsieran izango dira, baita sukaldaritza lehiaketan, erraldioen kalejiran eta jolas parkean ere, besteak beste.

Domekan, berriz, Euskadiko Dantza Txapelketa jotkatuko da. Hantxe izango dira GOITBkoak txapelketa grabatzen, datorren eguazten gauean, 21:05ean, emititzeko.

Hortaz, oraindik Bergararako GOITB ikusteko aukerarik ez dugun arren, badi-rudi Bergararako, eta kasu honetan Bergarako jaiak badutela euren tokia Debagoieneko telebistan.



PROGRAMAZIOA

DOMEKA 3

17:30

Euskadiko dantza sueltoko txapelketa grabatuko dute. San Martin plazan.

ASTELEHENA 4

18:00

Albistegia Bergarako plazatik. GOITBko eguneroko albistegia plazan grabatuko dute.

EGUNERO

Xeleberrrikoak egunero ibiliko dira kalez kale.

Ipiñarri zerrategia S.L.

IBARRA Z/G. 20570 BERGARA. TELEFONOA: 943 76 15 93.

Altzariak
Arozgintza
Eraikuntza
Enbalajea

Hiru txosna, aurten Bideberrin

Txosna batzordeak hainbat kultura ekitaldi antolatu ditu aurten ere

Lanean dihardute auten ere Txosna batzordekoek. Hainbat ekitaldi antolatu dituzte Pazkoetarako. Hiru txosna jarriko dituzte Bideberrin, iaz baino bi gutxiago. Izan ere, gaztetxeok egoitza propioa dute, nahiz eta batzordeko kide izaten jarraitu, eta ikas-bidaiarako dirua lorzeko txosnarik ez da egongo.

Txosna batzordeak lanean dihardu aurten ere. AEK, EHE, Gazte Asanblada eta Gestorek sortu zuten iaz batzordea. Helburua zen, txosnagunean hainbat ekitaldi antolatuz, jaiei «bizitasun handiago ematea». Baita «euskarak eta euskal kulturak jaietan izaten duten presentzia handitzea ere». Aurten, helburu berberak dituzte batzordekoek. Gauzak horrela, Xabier Arregi 'Txapi' gogoratu nahi izan dute. Izan ere, «ekimenaren bultzatzaileetako bat bera izanik, aurten ez da jaietan izango Garzon epailearen aginduz Alcala Mecoko espetxean baitago».

Pazkoetan hiru txosna egongo dira Bideberrin: Gestorek, AEK-k eta EHEk jarriko dituzte. Gazte Asanbladakoek, kartzela zaharrean egoitza dutenez, ez dute txosnarik jarriko. Hala ere, batzordeko kide izaten jarraitzen dute.

Arestian aipatutako helburuak betetzeko, hainbat ekitaldiz osatutako egitarau



Urtero moduan, egubakoitzean, zortzietan, irekiko da txosnagunea. ARTXIBOA

TXOSNA BATZORDEAREN EGITARAUA

BIDEBERRI

EGUBAKOITZA 1

20:00 Txosnak ireki: Bideberritik abiatuta, txikiteoa tabernetan, trikitilariak lagunduta.

ZAPATUA 2

18:00etatik aurrera Informazio-taulak: argazkiak, kartelak...

DOMEKA 3

20:00 Txotx festa.

ASTELEHENA 4

19:00-21:30 Elektrotuna taldearekin kalejira.

MARTITZENA 5

22:00 Amaiera ekitaldia.

GAZTETXEA

Hainbat rock kontzertu. Ikus 28. eta 29. orrialdeak.


alternatiboa antolatu du batzordeak Pazkoetarako. Ekitaldi horietako batzuk Bideberrin izango dira (ikus azpiko taula), eta beste batzuk gaztetxean (ikus rock kontzertuei dagozkien 27,28 eta 29. orrialdeak).

Bestalde, aurten ez da San Martin plazan txosnarik egongo. Iaz, udalak Banco Guipuzcoanoren parean jarri zuen txosna. Asmoa izan zen hango ekitaldiekin batera plazari bizitasun handiago ematea. Egunkari eta ONCEko kioskoak Banco Guipuzcoano parera eraman behar dituzte, eta ez da tokirik izango txosnarendako.

SEGURTASUN NEURRIAK

Iaz Pazkoetan egin zuen moduan, segurtasun hesia jarriko du udalak Bideberriko txosnagunean. Erreka ondoko harrizko hesiaren gainean metalezko xaflak jarriko dituzte, Bideberr osoa hartuta. Segurtasun hesi horrek hiru metroko altuera izango du gutxi-gorabehera; betiere, segurtasuna bermatzeko.

Terrazan nahiz
jantokian, oilaskoak
Tartufo erara





Pazkoetan ere
eguneko menua
ematen dugu!

JAIK GOZOTASUNEAN PASATZEKO

San Juan auzoa, Elgetako bidea, Bergara. Tf. 943 76 35 51.

Gorde ezazu lekua Pazkoetarako!


B E R G A R A




Luis Mari Azkargorta



Jabier Lazkano



Xabier Arregi




Mikel Zubimendi



Jose Migel Gaztelu




Xabier Oregi



Iñaki Arietaleaniz



Mikel Askasibar



Jose Mari Etxaniz




Luis Etxeberria



**JAIK BAI, EUSKAL PRESOAK ETA ERREFUXIATUAK
EUSKAL HERRIRA ERE BAI**



Bergarako Euskal Presoak Euskal Herrira taldea



AGIRRE HORTZ KLINIKA

Nagore eta Alaitz Agirre eta Amaia Etxeberria

- Odontologia orokorra
- Periodontzia
- Ortodontzia
- Endodontzia
- Kirurgia
- Protesiak
- Ezarpenak
- Estetika
- Hortzen zuritzea

Ibargarai, 9. 1-B
943 76 00 23
09:00-13:00 eta 16:30-20:30



Ondo pasau jaixak!




ILEAPAINDEGIA

DIEGO VALOR

Zorionak denoi!

BERGARA

- **Mistoa eta estetikoa:**
Zubieta 38, behea Tel.: 943 76 37 70
- **Gizonezkoak:**
San Lorenzo 2, behea Tel.: 943 76 58 08
- **KING'S ileapaindegia:**
Zarugalde 23, behea. Tel.: 943 79 84 88 ARRASATE





Zer ordura arte lagatzen dotsue kalian ibiltzen?

PERU AZKARATE

15 urte

Neri ez doste ordu mugarik jartzen, esaten dosten bakarra da gutxi edateko eta formal ibiltzeko. Berandu jun naizenetan, ia zertan ibilli naizen galdetu doste.

JABI FERNANDEZ

16 urte

Ez doste ordu mugarik jartzen; formal ibiltzeko esaten doste, askorik ez edateko. Ez doste sekula errietarik egin berandu jutiagaittik, baiña ordu horretara arte zertan ibilli naizen galdetzen doste.

MARTA SEVILLANO

16 urte

Bostak aldian jun bihar izaten naiz. Gehixago geratu nahi izaten dot kalian, baiña ez dot ezer lortzen.

MAREN BELASTEGI

15 urte

Ettxera bakarrik ez juteko esaten doste, lagunak juten diranian juteko. Kalian gehixago geratzia nahi izaten dot, baiña konformatzen naiz.



Eta zuri, ordu mugarik jartzen zotsuen?

ANE ALBERDI

35 urte

Normalian bai. Ez naiz akordatzen zer ordura arte, baiña ordua jartzen zosten. Nik, jakiña, berandura arte geratzia nahi izaten neban, eta asko eztabaidatu eta gero, zerbait lortzen neban.

PEDRO JORGE

34 urte

Bai, jartzen zosten ordua, beranduen hirurak arte. Nik gaupasa egittia nahi izaten neban, baiña ez neban askorik lortzen, asko jota gaupasa bat egittia-edo.

NATI AZKOAGA

42 urte

Ordu bata arte-edo lagatzen zosten kalian ibiltzen. Jakiña, nik gehixago nahi izaten neban, baiña ez neban lortzen ordu muga luzatzerik. Orduetik aurrera, berandu etxeratu ezker, bronkia egoten zan.

SALUSTIANO OYA

47 urte

Bai, bai. Amak gehixago lagatzen zostan, baiña aitta oso zorrotza zan. Goizeko ordu bixetan etxian. Ez neban diskutitzen, esandakua egin bihar, aitta gogorra zan-eta.



Tf. 943 76 56 88

J. Alberto Gorosabel Mendizabal doktorea

Odontologia orokorra

Inplanteak

Ortodontzia

Ahoko zirugia

Fraiskozuri 5A, I-D



Zutik: Jabier "Takolo", Olga Balzategi, Reyes Ruiz de Eginio, Maria Isabel Arenaza, Simon Osinalde, Arantxa Irazola, Maria Jesus Irazola, Juan Ignacio Unzurrunzaga "Juanin", Jabier Iturbe, Ina Egaña eta Iñaki Irazola.

Jarrita: Nati Balentziaga, Beni Agirre, Mari Kruz Luarizaristi, Maria Dolores Unamuno, Jesus Oroiz, Jose Martin Ormazabal eta Pedro Mari Martin. Kamioiaren ondoan agertzen den neskatila Mari Kontxi Osinalde da.

Ozaetako koadrila, 1972ko Pazkoetan

Jende askok gogoan izango du garai batean Pazkoetan izaten zen estampa lehiaketa. 1970eko hamarkadan Pazkoetako ekitaldirik garrantzitsuena izaten zen eta koadrila gehienek esku hartzen zuten. Argazkian agertzen den Ozaetako koadrilak 1972ko estampa lehiaketarako ikuskizun berezia prestatu zuen, eta hor ditugu, kamioi gainean, Ozaetan bertan ateratako argazkian. Ez dakigu saririk eskuratu zuten, baina ziur gaude primeran pasatuko zutela. Atzealdean duten pankartan honako hau irakur daiteke: '¿Desarrollo del hombre...?'. Auskalo zer-nolako zalantzak izango zituzten!

Argazkia: Jesus Oroiz.



zumelaga
JATETXEA

*Jai zoriontsuak izan
ditzazuela denok!*

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

59 urte zuen zerbitzura!



LAKET: Barrenkalea 35. Tf. 943 76 03 98

Emakumezkoendako, gizonetzkoendako eta ume eta gazteendako **marka onenak!**



Txiki eta Emakumezkoak: Irala 5. Tf. 943 76 37 41



Kruz Gallastegi 3 BERGARA
 ☎ 943 76 07 37

*Eta **orain** gazteendako, umeendako eta ume jaio berriendako altzariak aurkituko dituzu **denda berrian***



**Tapizak,
 moketak,
 alfonbrak**




ETXE MOBEL
MUEBLES ALTZARIAK

Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE




RKUZ
ALTZARIAK

Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



RKUZ
ELEKTRAGAILUAK

Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

expert 



RKUZ
SUARLDE INTEGRALA

Mitarte 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

FAGOR 

50 urte baino gehiago gure bezeroen zerbitzura.

Eskerrik asko emandako konfiantzagatik